


LAN MERKATUAREN TXOSTENA

2024ko urtarila

Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Urtarrilean gorakada nabarmena izan da Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruan, **7.063 langabe** (3.145 gizon eta 3.918 emakume):

- Langabezia % 6,6 hazi da abenduaren aldean.
- Langabezia % 1,7 jaitsi da aurreko urteko urtarilaren aldean.

Egia da langabeen kopuruak nabarmen egin duela gora urtarrean, baina fenomeno hori Gabonetako kanpainaren amaierak baldintzatzen du, eta urtero ikusten da.

Era berean, nabarmentzekoa da gizon langabeak eta emakume langabeak proportzio berean hazi direla, % 6,5 inguru abenduarekin alderatuta.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,9	8,3	10,1
Gizonen langabezia indizea	7,3	7,0	8,6
Emakumeen langabezia indizea	8,4	9,6	11,6
Genero arrakala	1,1	2,6	3,1

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,9koa da (7,3 gizonetan ;8,4 emakumeetan; 1,3 puntu portzentualeko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	8,3	-1,8
Donostia	7,9	-2,2
Bizkaia	11,0	0,9
Bilbo	12,7	2,6
Araba	11,1	1,0
Gasteiz	11,4	1,3

Lurraldeen arteko konparaketan, Gipuzkoa eta Donostia dira EAE langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburua.

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	7.063 %100	%6,6	-%1,7
Gizonezkoak	3.145 %45	%6,5	-%0,1
Emakumezkoak	3.918 %55	%6,6	-%3,0
Gipuzkoa	29547	%4,0	-%1,1
EAE	111.203	%3,2	-%1,5

Langabezia tasa EUSTAT-en arabera (2023ko 4. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,9 urtarrean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziatzat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2023ko azken hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburua.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2023ko azken hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,7	5,2	5,4
Donostia	6,3	5,4	5,9
Bizkaia	7,6	7,9	7,7
Bilbo	9,8	8,6	9,2
Araba	8,2	6,9	7,6
Gasteiz	10,1	7,3	8,8
EAE	7,1	6,9	7,0

Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan Lanbideren langabezia indizeak.

Eustatek, ordea, langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola).

JARDUERA-TASA (EUSTAT):

2023ko azken hiruhilekoko datuak.



	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	59,7	52,4	55,9
Donostia	60,1	50,6	55,1
Bizkaia	60,2	51,3	55,6
Bilbo	62,9	51,2	56,8
Araba	64,4	50,8	57,4
Gasteiz	64,6	50,0	57,0
EAE	60,7	51,6	56,0

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT):

2023ko azken hiruhilekoko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	56,3	49,6	52,9
Donostia	56,3	47,9	51,8
Bizkaia	47,3	55,6	51,3
Bilbo	56,8	46,8	51,5
Araba	59,1	47,3	53,0
Gasteiz	58,1	46,3	51,9
EAE	56,4	48,1	52,1

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, urtarrilean:

- 55 urtetik gorako 2.441 langabe erregistratu dira Lanbiden (+93 abenduarekin alderatuta).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.681 langabe erregistratu dira Lanbiden (+98 abenduarekin alderatuta).
- 35-44 urte bitarteko 1.310 langabe erregistratu dira Lanbiden (+101 abenduarekin alderatuta).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.127 langabe erregistratu dira Lanbiden (+63 abenduarekin alderatuta).
- 25 urtetik beherako 501 langabe erregistratu dira Lanbiden (+63 abenduarekin alderatuta).

Langabeen kopuruak gora egin du adin-tarte guztietan.

Egia da 55 urtetik gorakoak direla oraindik ere langabezian pisu handiena duten kolektiboak, baina horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

Abenduarekin alderatuta, gizonetako langabeak eta emakumezko langabeak % 6,5 inguru hazi dira.

Aldiz, aurreko urteko urtarilaren aldean, emakumeen kontratazioak langabeziaren urte arteko jaitsierari eusten dio (emakume langabeen kopurua % 3 jaitsi da; gizonena % 0,1).

Urtarrilean, EAEn eta Gipuzkoan langabeen kopuruak gora egin du, baina Donostian baino proportzio txikiagoan.


Aurreko urteko urtarilaren aldean, Donostiako langabeen jaitsiera (%-1,7) EAEn (%-1,5) eta Gipuzkoakoa (%-1,1) baino handiagoa izan da.

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%56,5	%43,5	-12,9
25 eta 34 urte bitartekoak	%47,0	%53,0	6,0
35 eta 44 urte bitartekoak	%41,1	%58,9	17,8
45 eta 54 urte bitartekoak	%45,2	%54,8	9,7
55 urtetik gorakoak	%42,6	%57,4	14,9

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

Langabezia gehien feminizatuta dagoen kolektiboa 35-44 urteko emakumeena da, generoen arteko aldea 18.9 puntukoa baita (abenduan baino ehuneko 1,1 puntu handiagoa). Adin-tarte horretan, 10 langabetik ia 6 emakumeak dira.

Langabeek lortutako gehieneko hezkuntza maila



Langabeen % 45,3k derrigorrezko hezkuntzako titulua du soilik. Hala eta guztiz ere, **langabeen % 18,4ek unibertsitate-ikasketak ditu** (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (unibertsitate-ikasketak dituzten langabetu gehiago eta derrigorrezko ikasketak soilik dituzten langabetu gutxiago).


Bestalde, goi-mailako ikasketak (LH eta unibertsitatea) dituzten emakume langabeen ehunekoa gizonena baino handiagoa da, eta esan dezakegu **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonen baino kualifikazio handiagoa dutela**. Aurrerago aztertuko dugun bezala, horrek pentsarazten digu genero-desberdintasunak daudela, emakumeen kolektiboarentzat kaltegarriak, lan-merkaturako sarbidean eta kalitatezko enpleguetan.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,4	%54,3	%54,7
35 urtetik beherakoak	%23,1	%25,2	%24,7
Iraupen luzeko langabezia	%43,8	%44,4	%48,4
Atzerritarrak	%15,8	%20,1	%18,5
EB-ko atzerritarrak / Atzeritarrak	%18,7	%17,3	%15,7
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,4	%11,6	%11,6
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%45,3	%53,6	%55,6

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- *Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabetu gehiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak gazteen langabezia txikiagoa du.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu.*
- *Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.*
- *Gainera, Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar langabeen guztizkoari dagokionez, handiagoa da Gipuzkoan (% 17,3) eta EAEn (% 15,7) erregistratutakoa baino.*

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Egia da urtarrean proportzio berean hazi dela gizon langabeen eta emakume langabeen kopurua, baina azken horiek gehiengoak dira sinatutako kontratuei dagokienez. Hala eta guztiz ere, **generoen arteko aldeak nabarmenak dira sortutako enpleguaren kalitateari dagokionez, emakumeen kolektiboaren kalterako baita.**

Urtarilean, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira (emakumeek sinatutako kontratuen % 50,2 eta gizonen sinatutako kontratuen % 31,5). Gainera, **hilean zehar sinatutako aldi baterako kontratuen % 60,4 eta lanaldi partzialeko kontratuen % 70 emakumeek sinatzen dituzte.**

Fenomeno hori emakume atzerritarrek kontratazioan duten garrantziak baldintzatu dezake. Urtarilean, kontratatutako pertsona guztien % 11,5 emakume atzerritarrak ziren (% 12,7 abenduan).

Horrek pentsarazten digu oraindik ere oztopoak daudela, eta horrek zaildu egiten duela lan-merkatura eta kalitatezko enpleguetara iristea.

Urtarilean 7.666 kontratu sinatu dira, hau da, abenduan baino % 11,75 gehiago (806 kontratu gehiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.150	%41,1	4.516	%58,9	7.666
Aldi baterakoak	2.312	%39,6	3.531	%60,4	5.843
Mugagabeak	838	%46,0	985	%54,0	1.823
Lanaldi partziala	992	%30,4	2.266	%69,6	3.258
Lanaldi osoa	2.158	%49,0	2.250	%51,0	4.408

Kontratu horiekin 5.377 pertsona kontratatu dira, hau da, abenduan baino % 8,6 gehiago (428 pertsona gehiago kontratatu dira).

Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.


Nahiz eta Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua % 6,6 hazi den urtarrean, abenduan baino kontratu gehiago sinatu eta abenduan baino langile gehiago kontratatu dira. Hori Gabonetako kanpainari lotutako aldi baterako kontratuak amaitzearen ondorio izan daiteke.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.229	%41,5	3.148	%58,5	5.377
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,4		1,4
24 urtetik beherakoak	556	%42,4	755	%57,6	1.311
25 eta 34 urte bitartekoak	649	%42,7	871	%57,3	1.520
35 eta 44 urte bitartekoak	414	%41,2	590	%58,8	1.004
45 eta 54 urte bitartekoak	418	%40,7	609	%59,3	1.027
54 urtetik gorakoak	192	%37,3	323	%62,7	515
Atzerritarrak	459	%42,6	619	%57,4	1.078

Nabamendu dezakegu:

- **Adin-tarte guztietan gizonak baino emakume gehiago kontratatu dira. Batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tartean.**
- **Kontratazio mugagabearen garrantzia pixka bat handitu da, eta Gabonen aurreko mailetan kokatu da (kontratu guztien % 23,8; abenduan, % 20).**
- **Partzialtasuna azaroko eta abenduko mailen antzekoa da, eta urtarrean sinatutako kontratuen % 42,4 lanaldi partzialekoak dira. Emakume gehienek sinatzen dituzte (kontratu horien % 70).**
- **Kontratuen % 53 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.**
- **Kontratuen % 29 45 urtetik gorako pertsonen sinatzen dituzte. Horien guztien % 60 emakumeak dira.**
- **Urtarilean kontratatutako pertsonen % 20 atzerritarrak ziren (% 18,7 azaroen eta % 22,2 abenduan). Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen % 57 emakumeak ziren.**

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Hiriko kontratu guztien % 17,4** sinatu zituen (maiatzean % 24 ziren).
- Hiriko kontratu mugagabe guztien % 24,6** sinatu dira (% 27,8 abenduan).
- Ostalaritza sinatu dira berriro kontratu mugagabe gehien, 448** kontratu mugagabe (abenduan 388)
- Hala eta guztiz ere, **ostalaritza sinatutako kontratuen % 34 baino ez dira mugagabeak** (% 55 irailean, % 40 urrian eta % 38 azaroan eta % 35 abenduan), **sektorean aldi baterako kontratazioarako joera agerian utziz.**
- Kontratazioaren partzialtasuna ehuneko 3 puntu jaitsi da azaroarekin alderatuta. **Ostalaritza sinatutako kontratuen % 52 lanaldi partzialekoak dira.**

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 11,3** sinatu dira (% 12,2 abenduan).
- Merkataritza hiriko kontratu mugagabeen % 13,4** (% 15,8 azaroan eta % 14,4 abenduan), eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 15,8** (% 13,7 urrian eta % 18,8 azaroan eta % 16,8 abenduan) sinatu dira.
- Urtarrilean zehar **merkataritza sinatutako kontratuen % 28 mugagabeak dira** (% 39 irailean, % 36 urrian, % 31 abenduan eta % 24 abenduan). **Ostalaritza gertatzen den bezala, aldi baterako kontratazioarako joera nabari da.**
- Merkataritza enregistrotutako kontratuen % 60 lanaldi partzialekoak dira** (% 57 urrian, % 63 azaroan eta % 59 abenduan)

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	3 (%0,2)	%100,0	%0,0
Eraikuntza	73 (%4,0)	%82,2	%17,8
Industria	40 (%2,2)	%72,5	%27,5
ostalaritza	448 (%24,6)	%56,0	%44,0
Merkataritza	244 (%13,4)	%38,9	%61,1

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	105 (%5,8)	%34,3	%65,7
Osasuna eta gizarte zerb.	174 (%9,5)	%19,0	%81,0

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	441 (%24,2)	%42,0	%58,0
----------------------	-------------	-------	-------

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	18 (%0,6)	%38,9	%61,1
Industria	56 (%1,7)	%60,7	%39,3
ostalaritza	699 (%21,5)	%37,6	%62,4
Merkataritza	515 (%15,8)	%27,6	%72,4

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	295 (%9,1)	%22,7	%77,3
Osasuna eta gizarte zerb.	751 (%23,1)	%15,2	%84,8

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	709 (%21,8)	%36,7	%63,3
----------------------	-------------	-------	-------

Egia da **behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian** (10 kontratutik 2,4 baino ez dira mugagabeak), **baina batez ere** jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da: **industria sektorean eta osasun-gizarte zerbitzuen sektorean** (sektore horietan sinatutako kontratuen % 87 eta % 89 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritza, merkataritza, hezkuntza eta osasun-sektorean. Azken horretan, **lanaldi partzialeko kontratuen % 85 emakumei egiten zaizkie** (oso sektore feminizatua da).

Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskainitako kontratazioan (% 0), industrian (% 28) eta eraikuntzan (% 21). Hala ere, **hezkuntzako kontratuen % 80 eta osasun-sektoreko kontratuen % 79 emakumeen kolektiboarentzat dira.**

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritza, ikerketak, aholkularitza, sormeneko jarduerak intentsiboetako eta abarretako jarduerak).


SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (423 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (35 kontr.), higiezin-jarduerak (11 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1049 kontr.), administrazio publikoa (38 kontr.), beste zerbitzu batzuk (94 kontr.) eta etxetako jarduerak (163 kontr.).

DSBEaren hartzaileak (abendua)

Gaur egun, ez daukagu datu eguneraturik DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta profilari buruz.

Eskuragarri dauden azken datuak abenduari buruzkoak dira, **hilabete horretan 3.552 pertsonak jaso baitzuten DSBEa hirian** (azaroan baino 41 hartzaile gehiago).


Urtarrileko daturik ez dagoenez, orrialde honetan abenduko datuak agertzen dira, Donostian DSBEa jasotzen dutenen kopuruari eta ezaugarriei buruzko balio orientagarriak izateko.



Nabarmendu daiteke:

- Abenduan DSBE jasotzen zuten pertsonen % 59,8 emakumeak ziren.
- Abenduan, 55 urtetik gorakoak DSBEa jasotzen zutenen % 47,8 dira.
- Abenduan, DSBEa jasotzen zutenen % 19,7ek lanaren osagarri gisa jasotzen zuten.
- Abenduan diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zutenen % 27k goi-mailako ikasketak zituen Donostian (Lanbide Heziketa edo unibertsitatekoak)
- Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera (abendua)



(Abenduko datuak)

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,2	%0,4	%0,3
20 - 24 urte	%1,7	%2,0	%2,1
25 - 29 urte	%4,6	%5,4	%5,4
30 - 34 urte	%6,6	%7,9	%7,6
35 - 39 urte	%8,9	%10,1	%10,0
40 - 44 urte	%8,6	%11,7	%11,1
45 - 49 urte	%11,1	%12,1	%11,4
50 - 54 urte	%10,3	%11,3	%10,7
55 urtetik gora	%47,9	%39,1	%41,5
barrutitik kanpora	#¡VALOR!	#¡VALOR!	#¡VALOR!
Derrigorrezko ikasketak	%54,4	%62,5	%60,0
Batxilergoa	%9,4	%6,8	%7,0
Lanbide Heziketa	%20,5	%16,9	%19,2
Unibertsitatea	%6,5	%4,3	%4,5
Informaziorik gabe	%9,2	%9,5	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%19,5	%17,0	%18,7
Oinarrizko DSBE modalitatea	%80,5	%83,0	%81,3
Gizonak	%42,9	%42,7	%42,9
Emakumeak	%59,3	%57,3	%57,1

(Abenduko datuak)

Auzoa	Biztanleria	DSBEaren hartzaileak	Giztizkoarekiko ehunekoa
Aiete	14.066	128	%0,9
Altza	19.517	590	%3,0
Amara Berri	29.377	428	%1,5
Antiguo	13.754	140	%1,0
Añorga	2.448	23	%0,9
Ategorrieta-Ulía	3.874	76	%2,0
Centro	21.352	337	%1,6
Egia	14.208	327	%2,3
Gros	17.563	256	%1,5
Ibaeta	9.721	121	%1,2
Igeldo	1.040	6	%0,6
Intxaurrondo	15.010	537	%3,6
Loiola	6.073	180	%3,0
Martutene	2.592	82	%3,2
Miracruz-Bidebieta	8.565	268	%3,1
Miramón-Zorroaga	2.302	22	%1,0
Zubieta	292	2	%0,7